



Uribetxebarria (-a) etxebizitza

Aldakerak:

Ahozkoa: Uribetxébarria



43° 10' 4"

2° 33' 26"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Uribetxea (**Ikus Uribetxea**) baserriaren ondoan XX. mende erdialdera eraikitako etxe berria dugu honako hau. Bi eraikinak bata bestearen ondoan eraikita daude, eta horren ondorioz, biak *Uribetxea* moduan ezagutzen dira, bigarren hau *Uribetxebarria* dela bereizi barik. Auzotarren artean, *Uribetxébarria* moduan ezagutzen da.

XX. mendeko etxea, luze eta estua. Garai hartan egiten ziren eran jasota dago. Bi isuritako teilatuaren azpian etxe soila ageri da. Fatxadak luzituta dauzka, osteko sotano aldea ezik,

harrizkoa baita. Ertzak, berriz, plaka fin bat margotuta indartu dira. Sarritan gertatu legez, sarrerako eskailerak albo batean atxikita ditu, kanpoan, azpialde guztia soto eran aprobeztatuta dagoelako. Fatxada nagusia *Uribetxeko* larrainera ematen duena da, eta teilatuaren gailurraren paraleloa da. Baoen ordena sinplea da: solairu nagusian, lau leiho eta lerrokatuta, ganbaran, beste lau baina txikitxoak. Alderik estuenean, izkinan dagoen etxeko atearen ondoan, beste leiho bat. Eta ganbaran, bi leiho etzan.

toponimia

Deitura moduan oso ezaguna den etxe izen honen osagaiak uri, euskara batuan 'hiri', baina kasu honetan etxe esangurarekin, etxe hitz arrunta, barri adjektiboa eta artikulua dira: Uribe auzoko etxe berria. Deigarri da Uribetxebarria deitura Donostialdera joatean Uribetxeberria bihurtzea eskribauek berri egokiago ikusten baitzuten. Baina bizkaierazko deitura honek uri eta barri ditu, ez berri ez hiri.



BUA / Mapa topografikoa, 1933